

OHIKO ZALANTZAK

EPEA (2021/07/09TIK 2021/08/05RA)

Eskabideak aurkezteko eta azterketa-eskubideak ordaintzeko epea, deialdiaren laugarren oinarriaren arabera: "Eskabide-orria 20 egun balioduneko epean aurkeztu behar da, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, deialdiaren iragarkia Estatuto Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita".

Era berean, eskabide-orriarekin batera, alegatutako merezimenduak justifikatzen dituzten agiri guztiak aurkeztu beharko dira, baldin eta interesdunak ez badio kontsulta egiteko baimenik eman udalari bertan.

TASAK

Dagokion tasaren ordainketa Laudioko Udalaren zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7. ordenantza fiskaleko XIII. eranskinean (Aztertzeko eskubideak) jasota dago. Horren arabera, azterketa egiteko ordaindu beharreko kuota hogeita zortzi eurokoa da (28,00 €). Kontu honetan sartu beharko da:

Laboral Kutxa ES07 3035 0045 2204 5003 7098.

Kontzeptu horretan, "Izen-abizenak" eta "TAG LEPa" adierazi beharko dira. Inskripzio-eskaerarekin batera, Udalaren kontuan sartu izanaren egiaztagiria erantsi beharko da.

AZTERKETAREN DATA

Lehenengo ariketaren data Udalaren webgunean argitaratuko da, onarpen eta baztertzeei buruzko Alkatetzaren Dekretua argitaratu baino bi (2) hilabete lehenago gutxienez, oinarri orokorren zazpigarren oinarriaren 3. puntuaren e) letrarekin bat etorriz.

EUSKERA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Euskara titulua egiaztatzeko azken eguna deialdi bateratuko lehen proba egiten den eguna izango da.

LANPOSTUEN EZAUGARRIAK

4001 kodea, Hirigintza eta Ingurumen Saileko arloburua: A1 taldea, Lanpostu-mailako osagarria 27, Euskararen 4. hizkuntza-eskakizuna.

3003 kodea, Ogasun eta Ondare Saileko arloburua: A1 taldea, Lanpostu-mailako osagarria 27, Euskararen 4. hizkuntza-eskakizuna.

1002 kodea, Kontratazio-teknikaria: A1 taldea, Lanpostu-mailako osagarria 24, Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna.

6001 kodea, Kultura, Kirol eta Jai Saileko arloburua: A1 taldea, Lanpostu-mailako osagarria 24, Euskararen 4. hizkuntza-eskakizuna.

10001 kodea, Toki Garapenerako Agentziaren Arloko arloburua: A1 taldea, Lanpostu-mailako osagarria 24, Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna.

IZENA EMATEKO MODUA

Inprimakia eta dagokion dokumentazioa, hobe, administrazio-postaz helbide honetan: Herriko plaza, z/g 01400 Laudio (Araba) edo egoitza elektronikoaren bidez bidaliko dira. Bestela, HAZen (hitzordua eskatuta).